

Espatularekin

Uxue Alberdi

"Hona hemen gu biok"
Dorothy Parker
euskaratzailea: Mirentxu Larrañaga
Alberdania / Elkar, 2006

Karmele Jaioren pertsonaietako batek dio, "Amaren eskuak" nobelan, pertsonak milaka aldiz pintatutako altzari zaharren modukoak garela. Altzari zaharrean, azkena eman zaion margo-kapa baino ez du ikusten begiratzen duenak, eta, normalean, ahaztu egiten zaio lehenago beste kolore bat izan zuenik ere. Denborak, baina, karraskatu egiten ditu pinturak. Pinturak ere bai. Hornei eta antigoaleko altzariei margo puskek erortzen zaizkie, eta agerian uzten dute lehenago izan zirena. Halakoetan, hormen atzean, gustu txarreko paper loratuak agertu ohi dira iraganeko garai deserosoak erakutsiz bezala. Lotsatu egiten gara gure ahaideen gustu txarraz.

Dorothy Parker espatularekin aritu da "Hon hemen gu biok" liburuan biltzen diren kontakizunetan, gizakiaren azken pintura kapari karraska. Makillajearen, arroparen eta irribarreen azpian ezkututzen diren grina txarrak, mendekotasunak, inkoherentziak eta heldugabetasunak azaleratzen ditu uneoro, eta deseroso sentiarazten gaitu ipuin askotan, hormako paper loratu eta barrokoek bezala.

Bikote-harremanez dihardu askotan egileak, min egiten duten horietakoez. Emakumeen gizonekiko dependentzia hitzetik hortzera darabil, inor haserrarazteko beste. Emakume txolinak, dependienteak, histerikoak... aurki daitezke orriz orri. Baina haserrea beldur bilakatzen da estereotipo horietan norberak bere alde txolina, dependientea edo histerikoa islatuta ikusten duenean... Paretak berriro pintatzeko gogoia ematen du.

Mirentxu Larrañagak ganoraz ekarri du euskarara. Bitxikeria bat aipatzekotan, harrigarri egiten den zerbait bada itzulpenean: New Yorkeko emakume aberats baten neskame beltzaren herri hizkera irudikatu nahian, goierritarrez berbetan jarri du emakumea itzultzaileak. Azal iluneko neskame goierritar bat New Yorken. Film baterako eman lezake.

Kontakizun zorrotzak dira, argiak, iradokitzen dakitenak. Sarkasmoz eta umorez astintzen du espatula Parkerrek. Erabat gomendagarria. Hori bai, izan margoa eta pintzela eskura, eroritako zatiak berriro pintatzeko: ez dezala inork nabaritu Parker duzunik mesanotxean.